"Txepetx"ekin elkar hizketa: «Gaurko egoeraren bi giltzak: kontzientzia pertsonala eta ekintza soziala»

Bide luzea egin du Jose Mari Sanchez Carriónek euskaldunen artean. Soziolinguistikak egin duena bezain luzea. "Txepetx"en arrastoak sakonak dira teoriaren eta diskurtsoaren baratzan. Espazio sinbolikoen teoriatik hizkuntza berreskuratzeko ezinbesteko den kontzientziaren bilaketara zabaldu du bere eremua. Horixe egin nahi izan dugu elkar hizketa honen eremu. Azken urteotako bilakaera, egoera, aterabideak. Hizkuntza berreskuratzeko pentsamendu, sentimendu eta ekimenaren eremua jorratu ditugu Lesaka ondoko zuhaitz batzuen gerizpean. Abstrakzioaren adarretatik gora batzutan. Erroen arrazoietan sakonduz besteetan. Euskararen enborrari eutsi nahian beti ere.

GALDERA: Orain SIADECOrekin zabiltza lanean, oker ez banago, SIADECOk egin dituen azterketa praktikoetatik ondorio teoriko batzuk atera nahian. Zein ondorio atera dituzu, ala oraindik goizegi da ezer aurreratzeko?

JOSE MARIA SANCHEZ CARRION: Bai, uste dut oraindik goizegi dela. Ni SIADECOrekin egiten ari naizena une honetan hiru motatako lanak dira. Alde batetik SIADECOk aukera ematen dit nire ikerlanak aurrera eramateko. Bestalde, aholkulari-lanetan ari naiz SIADECO barnean, esate baterako azterketa soziolinguistikoen galde-erantzunen prestaketan eta emaitzen azterketan. Eta, hirugarrenik, SIADECOk azken 10 urte hauetan egindako lanak bildu eta begiratzen ari naiz aztertzeko, batetik, dauzkagun datuek noraino frogatzen duten garatu dugun diskurtsoa eta, bestetik, datu horiek zein pista emango diguten lurraldetasunaren dialektikaren inguruko teoria aurrera eramateko. Orduan, orain arte egina dagoen bakarra zera da: lan eta azterketa hauen bilduma eta galdera-erantzun batzuen aukeraketa. Horretan gaude, oraindik sakontasunetan sartu gabe.

G.: Oraindik ezin da ezer aurreikusi.

J.M.S.C.: Baina nik uste dut lan honen lerro orokorrak ikus daitezkeela.Oso garbi ikusten dira gauza batzuk: ordezkatze-prozesua ez dela bukatu, Euskarak daukan dinamika bikoitza dela eta, hirietan Euskarak presentzia formala (idatzia bereziki) irabazten duen neurrian herri txikietan galduz doala, hori garbi ikusten da. Bestalde, garbi ikusten da ere, nola motibazioa eta erabilera ez diren parekatzen, ezta ezaguera ere. Euskararen alde daudenak ez dute denek ezagutzen eta ezagutzen dutenek ez dute horrenbeste erabiltzen edo behar duten bezala erabiltzen eta sintoma guzti hauek (sakontasunean aztertu gabe) uste dut frogatzen dutela orain arte esandakoa.

«Ordezkatze-prozesua ez da bukatu —Euskarak daukan dinamika bikoitzagatik—, eta hirietan Euskarak presentzia formala (idatzia bereziki) irabazten duen neurrian herri txikietan galduz doa»

G.: Dinamika bikoitza esan duzu. Hirietan euskalduntze-prozesua badoala aurrera maila batean eta herri txikietan edo euskaldunetan atzera. Iñaki Larrañagak Iparraldean egindako azterketan nahiko garbi agertzen zen hori: zonalde euskaldunenetan zaharrek euskaraz egin arren, motibazioaren aldetik oso gutxi motibaturik daudela eta gero izugarrizko saltoa dagoela, haurrek ez dakitela eta ez direla iristen euskara jakitera. Hori orokortu al daiteke? Horrek emango liguke mapa bat?

J.M.S.C.: Momentu hau oso arriskutsua da, Euskararen inguruan kontrako bi indar eragiten ari bait dira.

Alde batetik, ordezkatze-prozesua sostengatzen edo bermatzen duten indarrak. Indar hauek alde batekoak dira, eta segitzen dute oso ze-

hatz-mehatz azaldu daitekeen norabide bat. Baina beste aldetik, «contra todo pronóstico», gertatu dira inon gertatzen ez diren fenomeno batzuk.

Bata izango da Euskararen aldeko izugarrizko motibazioa Euskadi osoan. Esate baterako, Galesaren kasuan, Galesera galduz doa bai erabileran eta bai motibazioan ere. Euskal Herrian, berriz, alderantziz gertatu da, Euskara hiltzear zegoela hasi zen motibazio positiboa indartzen eta irabazten. Hala ere, motibazio hori ez zen motibazio naturala, motibazio kulturala baizik. Eta oso loturik zegoen, nik

«Galesera galduz doa bai erabileran eta bai motibazioan ere. Euskal Herrian, berriz, alderantziz gertatu da, Euskara hiltzear zegoela hasi zen motibazio positiboa indartzen eta irabazten»

uste, planteamendu politikoekin eta borroka politikoarekin. Orokorki, nik deitzen ditudan ibilbide kulturala eta ibilbide naturalak ez dira uztartu, ez ziren uztartu eta oraindik ez dira uztartu, kasu urri batzuk salbu. Transmisio natural horrek segitu du bere galtze-prozesua, gero nekatze-prozesua, eta transmisio kultural berri horrek hasi zuen prozesua ez da bukatu, ez da segurtatu, eta agortzear egon daitekeela ematen du ere.

G.: Zein dira ordezkatze-prozesu horretan eragiten duten indarrak? Zehaztuko al dituzu motibazio kulturala eta naturala?

J.M.S.C.: Hori ondo ulertzeko, garatzen dudan oinarrizko eskemara jo beharko dugu.



Euskararen egoera Franco hil osteko garaian (76-77an).

Ikas-prozesuaren teoriaren oinarrizko diagrama da hau. Baina diagrama hori aplika dakioke bai hiztunari, bai hizkuntz komunitate bati, bai hizkuntza osoari.

Zer gertatu zen frankismo garaian? Gerra ostean Euskararen erabilera murriztu egin zen eta, azken finean, kultur esparru guztiak galdu zituen edo ez zituen bereganatu; berriak zirenak erdarak bereganatu zituen eta lehengoak galdu egin zituen. Orduan, gauzak horrela, Euskararen ezaguera murriztu egin zen eta motibazio naturalak ez zuen bere nahikotasun-maila lortu.

Hartzen badituzu normalizatuak dauden hizkuntzak, guztietan erabilera, nolabait esateko, aktiboa suertatzen da. Zer esan nahi du horrek? Nik Ingelesa ikasten baldin badut, ikasten dut erabiltzen delako. Orduan, erabi-

«Euskararen aldeko motibazio hori ez zen motibazio naturala, motibazio kulturala baizik. Eta oso loturik zegoen, nik uste, planteamendu politikoekin eta borroka politikoarekin»

lerak motibazioa sortzen du; hori da motibazio naturala. Erabilerak hizkuntza baten ikasketa-prozesua sostengatzen duenean, orduan esan dezakegu transmisio naturala ziurtaturik dagoela.

Euskal Herrian, aldiz, ez zen hala gertatu. Hemen, motibazio naturala oso-oso murriztuta eta mugatuta zegoen, eta horren lekuko dira nik, eta ez nik bakarrik, SIADECOk eta beste hainbat jendek egindako landa-inkestak. Orain duela hogei urte Nafarroan herriz herri ibili nintzenean, jendearen kezkarik nagusiena zera zen: Euskara zertarako? Euskara ez zen erabiltzen eta ez zen motibazio natural hori lortu.

Baina, motibazio natural hori ez egon arren, motibazio kulturala sortu zen, nolabait esateko Euskararen ideologia sortu zen. Zein izan beharko luke motibapen kultural honen helburua? Hamar, hamabost edota hogei urte pasa ondoren jendea naturalki euskaratzea Euskararen erabilpen aktiboaren ondorioz.

Baina hori ez da gertatu. Gaur egun, maila orokorrean, Euskara gutxiago erabiltzen da orain dela hamar edo hamabost urtekin konparatuz. Maila orokorrean esan dezakegu frankismo-garaian bildu zela motibapen-kapital bat, ez dakigu edo oraindik ez dugu finkatu nola sortu ziren eta zergatik sortu ziren Euskararen aldeko ideologia guztiak, baina sortu egin ziren. Eta lortu zuten motibapen-kapital bat, eta kapital hori, momentu batean ondo erabiliko litzatekeela bazirudien ere gero alferrik galdu egin da. Ez da behar bezala erabili eta honen lekuko, besteren artean, transmisio familiarraren higadura eta euskaltegietan Euskara ikasten duten ikasleengan eman den motibazioaren aldaketa. Gaur egun motibazio instru-

«Gerra ostean Euskararen erabilera murriztu egin zen eta, azken finean, kultur esparru guztiak galdu zituen edo ez zituen bereganatu; berriak zirenak erdarak bereganatu zituen eta lehengoak galdu egin zituen. Orduan Euskararen ezaguera murriztu egin zen eta motibazio naturalak ez zuen bere nahikotasun-maila lortu»

mental bihurtu dira: lanerako, edo curriculum-erako. Hor dugu, baita ere, euskalduntze-prozesuaren beherakada eta gizarte-giroan eguneroko bizitzan nabaritzen diren agortze-sintoma guztiak.

Euskararen biziraupena lortzeko beste motibazio-kaudal bat bildu behar dugu. Ezin ditzakegu lehengo motibazioak edo lehengo arrazoiak erabili; aurreko arrazoiek ez dutelako balio gaurko euskaldunak eta euskaldun berriak bultzatzeko. Nik uste dut eta horregatik nago hemen momentu honetan, Euskal Herrian egiten ari naizena egiten, motibapen horiek sor daitezkeela diskurtso berri batetik. Hori da *Futuro para nuestro pasado* eta azken liburuetan, bereziki, nik garatutako diskurtso edo teoria. Baina hor badago ere bidegurutze bat, enkruzijada bat. Nik uste dut diskurtso hori nuklearra dela Euskararentzat, nuklearra zentzu horretan, nire ustez, horiek dira Euskarak behar dituen ideiak. Eta horiek dira Euskara behar duten ideiak.

Momentu berezian gaude, ez bakarrik Euskal Herrian baizik eta mundu osoan, bereziki Europan: ideologiak amaitu egin dira, ezkerrak porrot egin du, bai komunismoaren planteamendu tradizionalak, etab.ek. Hala eta guztiz ere, ideologiak bukatu edota Ekialdeko Estatu tradizionalak porrot egin arren, naturalak ziren gauzak zutik mantentzen dira, eta hauen artean nazionalismoa. Baina nazionalismoa hizkuntzaren aldetik ulertuta. Eta zer esan nahi du horrek? Esan nahi du nazionalismo guztiak «a la búsqueda de autor» dabiltzala, ezkerrak porrot egin duelako, eta eskuinari behin ere ez zaiolako interesatu munduko ezberdintasun kulturala, bai berriz ezberdintasun sozioekonomikoak ugaltzea gero eta gehiago, hori bai, homogenotasun kultural eta linguistikoa diskriminazio sozioekonomikoa maskaratzeko erabiliz.

Orduan, nik garatzen dudan planteamendu teorikoa ez da ideologikoa, ideien logika sakona baizik. Objektibismoa eta subjektibismoa uztartzen ditu. Inkesten teoriaz hasten da (inkesten teoria bait da definizioz arlo objektibagarriena), baina, hiztunaren jarrera eta joera kontutan hartuz, hiztuna ez delako inpartziala, ez irrelebantea, ezta preszindiblea ere. Eta hiztun bakoitzaren motibazio pertsonalak izugarrizko garrantzia dauka koadro horretan.

«Ideologiak bukatu edota Ekialdeko Estatu tradizionalak porrot egin arren, naturalak ziren gauzak zutik mantentzen dira, eta hauen artean nazionalismoa. Baina nazionalismoa hizkuntzaren aldetik ulertuta»

Bestaldetik, nirea ez da gizarte kontsumista eta alienatzaile baten basamortuan oihuka ari den mintzo bakarra: gero eta euskaldun gehiago hasi bait da beren barneko zentzu eta sena errekonozitzen. Eta, gainera, hori da beste askok esaten eta eragiten dutena ekologiaren aldetik, etikaren ikus-



«Nirea ez da gizarte kontsumista eta alineatzaile baten basamortuan oihuka ari den mintzo bakarra: gero eta euskaldun gehiago hasi bait da beren barneko zentzu eta sena errekonozitzen».

pegitik, psikosoziologia berri batetik edo bizimodu alternatiboetatik. Lurra, Amerikako inditarren nazioek dakiten bezala izaki bizia bait da, eskuzabala eta emankorra, baina gu, ume mainatu eta zabar bezala, gure gurekoiaren poderioz hiltzear jartzen ari garena. Lurra da, beraz, gugandik hitzegin nahi duena, behin eta berriz zigortzeke uko egin diogun bere ordaina eskatuz. Eta alor honetan bere ordaina da bereak diren ahots eta mintzaira guztiak errespetatzea. Gu zerbait izatekotan bere deihadarraren nota bat besterik ez gara. Diskurtso hau bait da Lurraren kontzientziaren eslaboi bat. Sor-

tutakoari errespetua («el respeto por lo creado») da, beraz. Errespontsabilitatearen diskurtso honen oinarria ulertzeko funtsezko gako bat.

G.: Zer jarrera ikusten duzu zuk gaur egun printzipalena hiztunen aldetik?

J.M.S.C.: Nire ikuspegia edo nire planteamendua da diskurtso horrek eman diezaiekeela bai Euskarari eta bai munduko komunitate guztiei biabilitate bat, uztartuz existitzen den intuizioa eta izateko beharra planteamendu zientifiko batean. Baina diskurtso hori oso periferikoa suertatzen da gaur Euskal Herrian. Diskurtso horrek ez du eragin sozialik eta mota askotako erasoak jasotzen ari da. Alde batetik tribializazioa. Horregatik, esate baterako niri ez zaizkit gustatzen entrebistak. Entrebista bat azken finean planteiamendu (tri)logiko baten tribializazioa bihurtzen bait da. Orduan, nik zerbait esateko berrehun orrialde behar baditut, ezin ditzaket esan hiru esalditan edo hiru sloganetan. Egiak slogan bihurtzen ditugunean egiak tribializatzen dira, eta orduan publizitatearen merkatuan sartzen gara. Andy Warhol-ek esaten zuen moduan, «en el futuro todos serán famosos durante quince minutos».

Slogan-ak ez dira arriskutsuak periferian kokatzen badira, baina bai erdian kokatzen direnean, orduan kitto diskurtsoa. Badago jende-multzo bat edo gune kualifikatu bat diskurtsoaren muina bereganatzen duena eta hori izango da beti erreferentzi puntua. Baina, zoritxarrez, gauden dinamikan, slogan-ak bihurtzen dira erdigunea. Hori da arriskua: tribializazioa.

Beste arrisku bat dikotomizazioarena da. Zer da dikotomizazioa? Adibide bat: Diskurtso honetan, beste gauza batzuren artean, badituzu hiru elementu: motibapena, ezaguera eta erabilpena. Dikotomia litzateke, kasu honetan, erabilera alboratzea. Esate baterako, Erakunde batzuk erroldaren datuen interpretazioan neurri bezala jendearen ezagutza hartzen dute, baina ezagutza hori oso artifiziala suerta daiteke. Gero eta gehiago ari da Euskara irakasten eskola-munduan, baina hori ez da froga bat, hori ezin dugu frogatzat hartu Euskararen berreskuratzea plazaratzeko. Hori da dikotomia bat. Beste dikotomia bat litzateke ezaguera eta erabilera kontutan hartzea baina motibapenen indarrak eta izaera kontutan hartu gabe.

Horrez gain, diskurtso horrek uztartzen ditu esplikazioa eta inplikazioa. Zer da inplikazioa Euskararen munduan? Euskararen munduan inplikazioa militantismoa izan da. Zer da esplikazioa? Bada, esplikazioa da zientifizismoa edo sasizientifizismoa. Nik ikuspegi sasizientifiko batetik hartzen baldin badut diskurtso hori aisa egin dezaket «llevar el gato al agua» deri-

«Gero eta gehiago ari da Euskara irakasten eskola-munduan, baina hori ez da froga bat, hori ezin dugu frogatzat hartu Euskararen berreskuratzea plazaratzeko»

tzana. Diskurtso horretan esplikazioa badelako. Eta militante baldin banaiz, egin dezaket ere «llevar mi gato al agua». Hor badagoelako ere inplikazio bat. Baina biek, bai batak eta bai besteak hartzen dute diskurtsoa eta hiltzen dute kentzen badiote bere elementu osagarria. Batzuk kentzen diote inplikazioa, fosilizatuz eta maila akademiko eta museozkoa edo erudito batean kokatuz. Eta besteek kentzen diote bere botere logiko eta arrazionala. Bere planteamendu politiko irreduktibleetatik abiatuz egiten dituzte Euskarari buruzko eta hezkuntzari buruzko planteamenduak. Orduan, hori da gerta daitekeena, diskurtso honen perifizazioa edo alboratzea azken finean; eta prozesu horrek isladatzen du Euskararen perifizazioa bera. Eta bata aldatzen ez baldin badugu ezin dugu bestea aldatu.

G.: Zuk inpresioa daukazu zure diskurtsoa alboratzen ari dela edo, behintzat, periferiara bidaltzen bi aldeetatik, sasiesplikazio zientifikoak ematen dituztenen aldetik eta baita ere militanteen aldetik?

J.M.S.C.: Klaro, aurreko etapatik funtzionatzen duen inertziak honi ekiten dio. Eta inertzia hori kontrarrestatzeko kontzientzia bat sorterazi behar dugu derrigorrez. Baina hori ere hasi da eta hasiko da bere fruituak ematen.

G.: Agian joan gaitezke arloz-arlo aztertzen pittin bat nola ikusten dugun egoera hori, ez hainbeste teoria edo diskurtso mailan baizik eta egoera errealago baten mailan. Esate baterako, nola ikusten duzu komunikabideen arloa? Komunikabideen eragina azken urte hauetan funtsezkoa izan da, telebistarena bereziki. ETB eta Euskadi Irratia sortu dira,... Zenbateraino frenatzen dute hauek erdal komunikabide guztiek areagotzen duten ordezkatze-prozesua?

J.M.S.C.: Planteamendu artifizial edo abstraktuegietan ez erortzeko joan behar dugu, berriz ere, eskema basikoetara. Ordezkatze-prozesuan eta normalizatze-prozesu batean, egon badaude elementu asko: faktore demolinguistikoa, lurraldetasuna, hiztunaren, euskal komunitatearen eta

«Kotxe batekin konparatzen baldin baduzu, hor badago motorra martxan jartzen duen elementu bat, giltza dena. Motor guztiaren, gure motor guztiaren giltza dena, Euskara berreskuratzeko, Euskarari biabilitate bat emateko: kontzientzia pertsonala»

lurralde aski edo nahiko baten inbrikazioa, hizkuntzen arteko berdintasuna edo distantzia linguistikoa,... Baina elementu guztiak, elementu guzti horiek ez dute denok berdintasun berbera, mailakatuak daude, eta batzuk hasten dira besteen aurretik. Nolabaít esateko, kotxe batekin konparatzen baldin baduzu, hor badago motorra martxan jartzen duen elementu bat,

giltza dena. Motor guztiaren, gure motor guztiaren giltza dena, Euskara berreskuratzeko, Euskarari biabilitate bat emateko, kontzientzia pertsonala da. Hori da azken finean.

Lortzen baldin baduzu kontzientzia sozial bat, pertsonaren inplikaziorik gabe ez da kontzientzia. Kontzientzia beti pertsonala da. Gaur oso gauza desberdina da kontzientziaturik dagoen jende-kopurua uztartzea eta elkartzea edo gizarte-mailan, nolabaiteko kontzientziaren itxura duen mezu bat, mezu propagandistiko edo modazko mezu bat botatzea, gero jendeak ez duela bereganatzen ikusteko. Hor badago jauzi kualitatibo bat ematekotan eta haustura-tentsioa ematekotan elementu oinarrizkoa den giltza, egoeraren kontzientzia pertsonal bat, handik hasten da dena, gero kontzientzia pertsonal hori gauzatu behar da gizartean, gauzatu eta garatu. Baina pertsonala izan behar du, pertsonala. Kontzientzia pertsonala da abiapuntua. Eta helmuga, berriz, kontzientzia soziala.

Orduan, zer gertatzen da komunikabide guztiekin? Oso onak direla, eta oso onuragarri direla Euskararentzat. Bestaldetik bideratua dago edo guztiz aurreratua, soziolinguistikan esaten dugun, (edo esaten dena, niri ez zait asko gustatzen hitza, baina erabiliko dugu) «corpus»aren normalizazioa. Hizkuntza normalizatzeko behar ditugu bi hanka, bata da «corpus»arena eta bestea «status»arena. Baina, normalizatu behar dena motibapena, ezaguera eta erabilera da. «Corpus» eta «status»aren terminologia dikotomikoa da, ez du kontutan hartzen erabileraren normalizaziorik. Orduan, hitz egin behar dugu propioki, hitz egiteko esan behar dugu erabileraren normalizazioa, «corpus» edo ezagueraren normalizazioa eta motibapenaren normalizazioa. Orduan, zer egin da? Beno, asko aurreratu da horretan, baina pauso hau betetzen baldin badugu izan daiteke oso baliozkoa ala baliogabekoa. Depende, zer dugun hemen. Nik Euskararen aldeko kontzientzia pertsonala lortzen baldin badut, orduan egunkaria atera eta gero erosiko dut. Edo TBko hiru kateren artean nire lehen aukera ETB-1 izango da, «a igualdad de producto» nire aukera izango da hizkuntzaren aldeko aukera. Baina, motibapen pertsonala landu ez bada, lantzen ez bada, dena izango da «un progreso en el vacío».

G.: Eta motibapen pertsonala lantzen al da? Nola lantzen da?

J.M.S.C.: Orain arte ez da landu gehienetan. Zergatik ez? Ideologia guztiek militanteak behar dituzte. Eta gauza bat da militante izatea eta beste gauza bat da kontzientzia pertsonala lortzea. Militante batzuk lortzen dute kontzientzia pertsonala, baina

«Lehenik duzu hiztuna, bitarteko elementua hizkuntz komunitatea da eta kanpoan geratzen den arlorik nagusiena hizkuntzarena berarena da. Hizkuntzaren beraren arlo honen beste izena lurraldea da, lurraldetasuna»

besteek ez, beste askok ez. Zertan nabaritzen da kontzientzia pertsonala hor dagoela? Zuk egin behar duzuna egiten duzu horrek konbentzitzen zaituelako, orduan, hor dago eritzi pertsonal bat. Baina zuk gauzak egiten badituzu norbaitek esan dizulako, orduan, ez dago kontzientzia pertsonala, akaso besteak lortu du kontzientzia pertsonalik, baina zu zaude egoera jarraitzaile batean eta gaurko Euskal Herrian, nik uste dut orain arte ere jarrera hori nagusia izan dela kuantitatiboki gutxienez, baina horretan ere gauzak onerako aldatzen ari direla uste dut.

G.: Baina hor dago, baita ere, gauza bat. Gauza bat da kontzientzia pertsonal bat lortu behar dela hizkuntzaren alde eta kontzientzia sozial bat lortu behar dela. Gu egon gaitezke pertsonalki oso arduratuta hizkuntzaren alde.

J.M.S.C.: Baina hor dago, eta nik Bergarako ikasleei argi eta garbi esan nien. Ni ibili naiz diskurtso hori garatuz, azken hogei urtetan. Eta momentu batean iritsi naiz konklusio horretara, korapilo horretatik ateratzeko behar dugula bi giltza sartu, ate berean bi giltza. Bata inplikazio pertsonala, kontzientzia pertsonalarena, bestea ekintza sozialarena. Eta batzuk hartzen dute nik esandakoa eta esaten dute: zu oso pertsonalista zara, mistikoa edo utopista edo nahi duzuna. Ez duzu kontutan hartzen gizonaren dimentsio soziala. Besteek aldrebes, hartzen dute haiek geratzen direlako maila pertsonal batean, elebitasun pertsonalean, eta intentzio onaren diskurtso horretan eta gizartearen norabideari dagokionez orduan, esaten didate: hori gehiegikeria da, zu oso arradikala zara, hori arradikalismoaren diskurtsoa da.

Eta ez dute arrazoirik, ez batzuek ez besteek. Nik esaten dut, kontzientzia pertsonala gizartea aldatzeko, eta esaten dut, gizartea aldatzea kontzientzia pertsonala sorterazteko, ez jendea alienatzeko. Neretzat, kontzientzia pertsonala baldin badago, bere helburua jende kontzientea sorteraztea izango da. Eta jende kontzientea sortzen baldin bada izango da gizarte berri, zuzen eta egoki bat sorterazteko. Eta hori da nik esaten dudana, bestaldetik, nik esaten dudana guztiok sentitzen duguna da. Ez da nik asmatutako zerbait.

G.: Bai, horretan bat gatoz. Gauza da nola sortzen den kontzientzia pertsonal hori eta aldi berean kontzientzia sozial hori nola sor dezakegun. Igual hori da lehendabiziko galdera, eta gero...

J.M.S.C.: Kontzientzia pertsonala nondik ateratzen dugun? Bada, uztartutako hiru alde hauetatik: autoerrespetuzko sentimendu batetik, ideia berrietatik eta ekintza orekatzaileetatik edo Euskararen planteamendu trilogiko batetik, nahi duzuna. Jar diezaiokezu nahi duzun etiketa, baina azken finean gauza bera izango da.

«Hizkuntza bat gauzatzen da edo gauzatu behar da lurralde baten bidez. Hori ez da abstrakzio hutsa, oso gauza konkretua da, territorioa»

Zer egin da aurreko diskurtso askorekin? Jendeari motibapen bat eta ekiteko kontsigna bat eman zaio, baina ezaguera landu gabe, eta jendearen ezaguera lantzeak beti dakarkigu arrisku bat, «el riesgo de la discrepancia». Orduan hasiera izan behar da gauzak konprenitzeko, eztabaidatzeko, ulertzeko modu berri bat. Hartu behar ditugu berriak diren ideia horiek eta zabaldu, eta ezagutu modu berri baten bidez. Hala egiten ez badugu, orduan, ala ni bihurtzen naiz nahi ez dudan teoria baten «guru» eta jendeak ez du diskurtsoa berez eta bere kabutik hartzen eta hori izango da diskurtso honen porrota, ala diskurtso horrek ez du behar duen eragina lortuko eta betiko saltsetan eta betiko kontuetan jarraituko dugu, jarrai dezakegun neurrian, denbora mugatuta gelditzen bait zaigu.

G.: Motibazioaren aldetik eta gero, ezaguera aipatzen dugunean etab., horrek esan nahiko luke ez dela bakarrik ezaguera linguistikoa edo hizkuntzaz jabetzea, baizik eta jabetu behar duela egoeraz eta hizkuntzaren egoerari buruzko transmisore bat izan behar duela?

J.M.S.C.: Bai. Esango dizut, esan ahal dizudan mailarik objektibatuenean.

Lehenik duzu hiztuna, bitarteko elementua hizkuntz komunitatea da eta kanpoan geratzen den arlorik nagusiena hizkuntzarena berarena da. Hizkuntzaren beraren arlo honen beste izena lurraldea da, lurraldetasuna. Hizkuntza bat gauzatzen da edo gauzatu behar da lurralde baten bidez. Hori ez da abstrakzio hutsa, oso gauza konkretua da, territorioa. Baina, badago espaziotik kanpo geratzen den laugarren elementua, eta laugarren elementua denbora da. Eta ez bakarrik teoria horretan, fisikan laugarren dimentsioa denbora da.

«Berezi behar dugu esperimentatu gabeko teoria hutsa eta esplikatu gabeko esperientzia hutsa. Hori ere funtsezkoa da diskurtso honen ezaguera zer den ulertzeko»

Zer da denboran zehar mugitzen dena? Denboran zehar maneiatzen eta mugitzen ditugun gauzak ideiak dira. Orduan, ideiak laugarren dimentsioan kokatzen dira. Ideiek badute ere beren eremu sinbolikoa eta eremu sinboliko hori AB eta BA da, eta hor badaude A esperientzia batzuk eta B ideia batzuk eta ideiak ez diren gauza batzuk, kontsignak bezala funtzionatzen duten esaldi batzuk, klitxeak, etiketak... Zer da AB eta BA ideien munduan? Ideien munduan A esperientzia da eta B teoria. Orduan, zure esperientzia teoria batekin uztartzen duzunean esperientzia arrazionalizatu bat daukazu, AB ideia daukazu. Berezi behar dugu esperimentatu gabeko teoria hutsa eta esplikatu gabeko esperientzia hutsa. Hori ere funtsezkoa da diskurtso honen ezaguera zer den ulertzeko.

Zer egin behar den? Bi motatako gauzak. Dugun diskurtso horrek emango dizkigu ideia batzuk eta moti-

«Ez bakarrik Estatu-mailan, Euskal Herrian ere, bere buruaren pertzepzioa duen komunitate bakarra erdalduna da. Erdaldunek lotzen dutelako hizkuntza eta nazioa. Euskaldungoaren artean, berriz, Euskararen minorizazioaren poderioz, bi kontzeptu horiek bereiztu egin dira»

bapenak. Horiek erabili behar ditugu, bakoitzak bere arloan, ikastoletan erabili, erabili alderdi politikoetan, eztabaidatu komunikabideetan, etab. Baina diskurtso horrek ematen duen ildo nagusia zera da, ditugun esperientziak esplikatu ditzakegula. Horiek izango dira gure ABk. Hala egiten badugu, orduan betetzen dugu bitarteko baso hori. Egiten ez badugu, esperientziek funtzionatzen dute elementu konfrontatzaile bezala eta motibapenek kontsigna bezala. Orduan, diskurtsoa geratzen da B, A eta hutsa, eta barneko une hori ez da betetzen. Orduan, ideien arabera egiteko duguna da onartzen ditugun teoriak aplikatzea eta jasotzen ditugun esperientziak esplikatzea, dugun motibapena (gizadiaren berdintasun sozioekonomikoa bere originalitate edo desberdintasun linguistiko-kulturaletik) bete eta lortu arte.

G.: Zein dira zure ustez gizartearen jarrera dominanteak hizkuntzari buruz? Komunitateaz ari zarenean zer esan nahi duzu, euskal hiztunen komunitatea ala euskal herritarren komunitatea?

J.M.S.C.: Klaro, hor sartzen da nazio hitzaren historia guztia. Nik uste dut, momentu honetan, ez bakarrik Estatu-mailan, Euskal Herrian ere bere buruaren kontzientzia, edo kontzientzia baino hobe pertzepzioa, bere buruaren pertzepzioa duen komunitate bakarra erdalduna dela. Erdaldunek lotzen dutelako hizkuntza eta nazioa. Euskaldungoaren artean, berriz, Euskara minorizatua dela-eta, edo minorizazioaren poderioz, bi kontzeptu horiek sakabanatu egin dira, bereiztu egin dira.

Irakurriko dizut parrafo bat:

«Para decirlo de un modo perfectamente claro, la lengua dominante comienza invadiendo usos de un campo lingüístico inicialmente homogéneo, el de la comunidad dominada, avanza a través del paradigma de extorsión conquistando la percepción lingüística de los hablantes del idioma minorizado, inicialmente semibilingües con la lengua invasora como lengua cultural. En una segunda fase bilingües con un desarrollo completo de la lengua invasora, en este caso para la tercera fase monolingües en la lengua invasora».

Oso argi dago.

«Según se va acercando a esta tercera fase la lengua invasora se va apropiando también de la motivación, que era la que contrapesaba mediante el peso de la lealtad lingüística hacia la lengua histórica del territorio el peso

«Korapilo horretatik ateratzeko behar dugu bi giltza sartu, ate berean bi giltza. Bata inplikazio pertsonala, kontzientzia pertsonala, bestea ekintza soziala».

de la adaptación social hacia la lengua útil en el Estado. Es posible que para entonces ya exista toda una ideología entre los intelectuales de la colectividad asimilada sobre la capacidad de simultanear una conciencia política diferenciada de ellos mismos con un uso y un conocimiento exclusivos de la lengua importada, de la lengua dominante. Cuanto más se

desliga un nacionalismo político de la lengua patrimonial tanto más trivial es y tanto más avanzada está la sustitución de lo que es realmente lo esencial, la propia personalidad colectiva, de modo que si no tuviéramos otros medios a nuestro alcance para fijar con precisión casi matemática el diagnóstico de la situación, éste se podría establecer en base a este síntoma, el uso que hacen de la lengua minorizada aquellos individuos que la colectividad en proceso de asimilación o expatriación siente, identifica y elige como sus más geniunos representantes».

Uste dut parrafo horrek adierazten duela nik esan nahi dudana.

G.: Eta maila horretan, hemen esate baterako, ikusita agintaritza-mailan, alderdi politikoen jardun linguistikoaren mailan, hori horrela ikusten duzu oro. Ez daude sintomak horren aldaketarako, edo ez duzu ikusten indar nazionalistarik ematen dionik hizkuntzari bere biziko garrantzia. Esan nahi dizut, ez bakarrik sloganak, baizik eta barne-erabilerako eta...

J.M.S.C.: Nire ustez ez maila orokorrean bezala, baina hartzen badugu partidu bakoitza, bakoitzaren barnean egoera diglosikoa ematen da. Eta botere edo prestigiorik handiena dutenek joera hori segitzen dute. Bestelako planteamenduak dituztenak ere egon badaude, baina oso periferikoak eta indargabekoak geratu dira. Baina, partiduetatik kanpo sortzen baldin bada dinamika berri bat, edo euskaltzaleen konpaktazio-prozesu berri bat sortuz gero, partiduak ere aldatuko dira.

G.: Zuk aipatzen duzun gauzetako bat «diskurso de la irrealidad» delakoa da, aipatzen duzunean euskaldunak atomizatuta gaudela, alderdien helburu politikoak hizkuntz helburuen gain daudela, e.a. Eta horren aurrean planteatzen duzu euskaldunen konpaktazioa, euskaldunen edo komunitatearen konpaktazioa. Hor dago lehen galdetzen nizunaren zergatia baita ere. Euskaldunena bakarrik, komunitate osoarena, nahiz eta erdaldunak izan eta motibazio edo kontzientzia bat izan hizkuntzarekiko. Horiek ere hor konpaktatzen diren edo bestela nola osatu ematen den atomizazio horren kontrako diskurtsoa?

J.M.S.C.: Gertatzen dena da gai hori beste elkar hizketa bat dela. Hala eta guztiz ere, saiatuko naiz hitz gutxitan azaltzen. Gizadia sartu da N.R. Keppek deitzen dion 'inbertsio' prozesu batean (errealitatearen izugarrizko inbertsioa, hain zuzen). Nola bizitzen da inbertsio hori hizkuntzen arazoan? Euskaldunok, nazio zapaldu bezala,

«Geure ahaleginak ez dira inoren kontra, ezta ere erdaldunen kontra, zeren eta guk garatzen dugun perspektibak ematen bait die haiei ere guk bezainbeste behar duten perspektiba integratzaile, askatzaile eta desalienantea»

subordinatu egin ditugu edota jarri ditugu geure aspirazio politiko guztiak (eta desberdinak: erradikalismo edo independentismo politikoa hor barne) «de facto»zko errendizionismo linguistiko baten azpian. Eta joera horretan edozein planteiamendu politiko boterea lortzen saiatzen bada ere, hizkuntzaren (hots, identitatearen) galera bultzatzen du edo gutxienez ez du geldiarazten. Arlo honetan joera normalagotzat jotzen baldin badugu Flandrian eman zena edo Lituanian ematen bide ari dena ikusiko dugu nola han bertako planteiamendu politikoak 'erradikalismo' (hobe esatea 'nahikotasunismo') baten azpian jartzen diren '*nere*' alderdiko garaipenak edo porrotak *gure* hizkuntzaren bizipena arriskuan jar ez dezan. Bestaldetik, hori da prezeski estatu hedakor guztiek 'subdito'ekin eragin duten jarrera linguistikoa: beren eliteen hizkuntzaren nagusitasuna edozein planteamendu politikoren gainean jarri nahiaz, halako estatu bateko partidu baten botere-aldaketak ez dezala suposa funtsezko hizkuntz politika aldatzea. Zentzu horretan esan al daiteke horiek konpaktatu direla? Bai eta ez. Egia da hor dagoela hizkuntza menperatzaile edo dominantearen aldeko kristalizazio bat. Baina alde batetik hierarkia batean menperatu baten menperatzailea bihurtzen da menperatzaile baten menperatua bera. Bestaldetik, kristalizazio hori eragiten duen indarra ez da kontzientziarena, alienazioarena, beldurrarena eta ezjakintasunarena baizik. Eta azken finean alienazio hori da bizi osoa arriskuan jartzen ari dena, jasan ezinezko tentsioa areagotzen duelarik. Horregatik guk nahi duguna ez da «berdina baina aldrebesa» izango. Guk nahi duguna da munduko herri txiki eta nazio natural guztiek bilatzen ari direna: munduko herri guztiekin parekotasunean bizi. Hori da be-

«Uste dut Euskal Herrian Euskaraz-ek duen jomuga guztiz baliagarria eta aprobetxagarria dela, eta zerbait oker egon baldin bada, ez da jomuga hori izan, elementu baten falta baizik. Euskal Herrian Euskaraz taldea lanean hasi zen unean ez genuen orain dugun prozesu osoaren ulermena»

netan gure "gehiengo naturala". Eta hala izanik, geure ahaleginak ez dira inoren kontra, ezta ere erdaldunen kontra, zeren eta guk garatzen dugun perspektibak ematen bait die haiei ere guk bezainbeste behar duten perspektiba integratzaile, askatzaile eta desalienantea.

G.: Aipatu ditugu alderdiak eta alderdien barruan normalean gainditzen dela lehen aipatu dugun diskurtso modua. Eta hizkuntzarekiko ardura daukatenak bigarren maila batean geldi-tzen direla eta hor gertatzen dela «discurso de la irrealidad» edo delako hori eta atomizazioa euskaldunen artean. Nola ikusten duzu zuk konpaktazioa egoera horretan?

J.M.S.C.: Berriz ere eskema batetik abiatuko gara, oso ezaguna den eskema batetik: esparruen eskema.



HIZKUNTZ FUNTZIOAK

(Sanchez Carrion, 1981)

Ordezkatze-prozesuan zer gertatzen zaio menperatuta dagoen edo geratzen den hizkuntzari? Atomizaziozko prozesua, eta atomizaziozko eta dispertsiozko prozesua. Prozesu hori da nolabait esateko «una serie de divisiones sucesivas», orduan, hizkuntza galtzen baldin bada, bere nazio-mailako, bere standard nazionala, edo nazio baten hizkuntza izateko boterea eta eskubidea galtzen baldin badu hizkuntza batek, hemen sortzen da lehen aipatutako «ideologías políticas que se disgregan de la recuperación lingüística». Hor sortzen da lehen sakabanaketa. Baina gauza ez da hemen geratzen, hurrengo pausoan sortzen dira lokalismo folkloriko guztiak. Orduan, bizkaitarrak gipuzkoarren kontra, nafarrak probintzianoen kontra, iparraldekoak frantziarrak bezala ikustea, hegoaldekoak espainolak bezala ikustea. Baina ez da hemen geratzen. Hizkuntzak galtzen baldin badu herri baten, herri konkretu baten komunikatzeko tresna bakarra izateko duen boterea eta ahalmena, galtzen du arlo lokala eta hasten da galtzen arlo laborala eta orduan, Euskara ona da perretxikoak hazteko baina ez da hain ona informatikaz aritzeko, eta orduan, herri berean, eta pertsona berberak erabiltzen ditu gai batzuk Euskaraz eta besteak erdaraz, depende gaia zein den eta depende arlo laborala zein den.

Baina ez da hemen geratzen: dispertsioaren hurrengo elementua familia da. Famili inguruan amak neskari erdaraz, mutikoari Euskaraz, baina mutikoari beti ez, etab. Beraz, Euska-

ra ez da finkatzen hizkuntza familiarra bezala. Zatiketa sartzen da hemendik eta azken finean, zatiketa sartzen da zuregan, eta zuregan sartzen denean kitto, bukatu, dena bukatu da, orduan, hori bukatzen denean lortuko duzu osotasuna, baina beste hizkuntzan. Ahaztuko duzu zenuen hizkuntza eta gauetik goizera esnatuko zara berria, osoa, baina ez zaren hizkuntzan.

Hori da konpaktazioa zer den ulertzeko lehenengo pausoa. Konpaktazio-prozesua integratzeko prozesua da. Integratzailea den prozesu horretan, lehenengo pausoa da zure burua integratzea. Hor dago aukera: jakin badakit Euskara eta erdara, baina ni sentitzen naiz neu Euskaraz hitz egiten dudalako, eta Euskaraz hitz egiten dudanean, eta hori da lehenengo aukera, eta hala izan eta gero, saiatuko naiz gero eta gehiago Euskara erabiltzen, saiatuko naiz kontzientzia soziala kanporatzen, esparruak zabaltzen eta zabalduko dut nire esparru familiarrean, egingo ditut hitzarmen batzuk nire kideekin Euskaraz mintzateko, eta modu horretan sortuko dut erlazio berri bat Euskaraz. Eta hasiko naiz nire lana edo nire arlo laborala euskaratzen eta sortuko dira, momentu honetan sortzen ari diren Arrasate Euskaldun Dezagun-en antzekoak, edo hobe esateko "herria euskaldun dezagun" antzeko taldeak, edota EHEk bultzatutako talde nahiz ekimen batzuk eta orduan, lortuko dugu herriak Euskaraz pentsatzea, eta hori egin eta gero, lortuko dugu Euskal Herriak Euskaraz birpentsatzea, edo pentsatzea berriz ere. Orduan, ordezkatze-prozesua kontzentrikoa baldin bada, besteak izan behar du eszentrikoa, erdarak duen bi zentzuetzan, kanpoan geratzen direnentzat hori da erabateko eszentrizitatea. Baina ez zuretzat, zuk duzun identitatea kanporatu behar duzulako. Ez ahaztu: bi muturretatik abiatzen gara, barne-koherentzia lantzen dugun heinean kanpo-sufizientzia lortzen saiatzen ari gara, gure eskubide natural hori botere soziopolitiko batek segurta dezan.

«Hor dago aukera: jakin badakit Euskara eta erdara, baina ni sentitzen naiz neu Euskaraz hitz egiten dudalako, eta Euskaraz hitz egiten dudanean»

G.: Hori da, nolabait, Euskal Herrian Euskaraz-ek orain dela 10 urte bultzatzen zuen joera: oso pertsonala, denbora guztian norberak ahalik eta toki gehienetan (etxean, lanean, jolasean,..) euskaraz egitea, erdaraz jasotako multak, etab. bueltatzea eta horrelako jarrerak hartzea. Inpresioa daukat horrek urteetan beherakada eman duela, hasieran jende dezente sartu zela pertsonalki borroka horretan baina azkenean horrek ez duela emaitzarik eman, gelditzen delako norbanako batzuren kontzientzia maila oso altuen esku eta gero ez dagoela baldintza sozialik hori egin ahal izateko. Nahiz eta zuk hori nahi, gizartea dagoen moduan egonik eta kontutan hartuta gainera lehen aipatu dugun denbora-faktorea, ba agian hori ez da nahikoa edo, situazio horiek sortu ahal izateko, ez ote diren sortu behar beste baldintza batzuk.

J.M.S.C.: Uste dut Euskal Herrian Euskaraz-ek duen jomuga guztiz baliagarria eta aprobetxagarria dela, eta zerbait oker egon baldin bada, ez da jomuga hori izan, elementu baten falta baizik. Euskal Herrian Euskaraz taldea lanean hasi zen unean ez genuen orain dugun prozesu osoaren ulermena. Hori egia da. Eta egia, baita ere, EHE eta antzeko taldeen esperientziari esker ezinbesteko tarteko faseak pasa ditugula. Orain, teoria trinko baten poderioz, badugu ulermen hori (gugandik, euskaldungoarengandik, sortutakoa eta bizitzaren mailan aurkikuntza historikoa dena), eta teoria horrek EHEri bultzada berri bat eman diezaioke; EHEren ekimen eta esperientziak teoria horri behar zituen egiaztapenak eman dizkion bezala.

«Orain, teoria trinko baten poderioz, badugu ulermen hori (gugandik, euskaldungoarengandik, sortutakoa eta bizitzaren mailan aurkikuntza historikoa dena), eta teoria horrek EHEri bultzada berri bat eman diezaioke; EHEren ekimen eta esperientziak teoria horri behar zituen egiaztapenak eman dizkion bezala»

Uste dut beste gauzen artean azken bolada honetan euskaldunok ikasi dugun ikasgaia honako hau dela: ezin dugula maila batetik bestera pasa aurrekoa bete gabe. Erdaraz esateko: «no se pueden dar saltos en el vacío». Ondo dago Euskadi euskaraz pentsatzea, baina ezin dugu Euskadi euskaraz pentsatzera iritsi gure lana euskaraz pentsatu gabe eta gure herria euskaraz pentsatu gabe. Eta are gehiago: barnean nahiz kanpoan darion bizitza euskaraz pentsatu gabe. Eta prozesu guztia bermatzen duena lehen esandakoa da: kontzientzia pertsonala. Kontzientzia pertsonalaren bidez kanporatzen bait dugu barnean dugun errealitatea eta barneratzen dugu kanpoan dagoen egiazko bizitza.

Zentzu horretan orain badugu lehen ez genituen, ez bakarrik teoria —eta askotan esan dut ez naizela teoria honen asmatzailea sentitzen, baizik eta teoria honen formulatzailea, nik euskaldunen eta hainbat jenderen esperientzia eta nekeak hartu ditut eta nireekin batera interpretatzen saiatu naiz—, beraz orain badugu ez bakarrik lehen ez genuen teoria, baizik eta baita ere lehen ez genuen esperientzia eta lehen ez genuen porroten esperientzia. Eta porroten esperientzia nola aprobetxatu jakiten badugu, oso baliagarri izango zaigu. Ez da alferrikako esperientzia.

Eta nik uste dut esperientzia horrek frogatu digula izan behar dugula ez bakarrik kontziente, baita ere koherente. Koherentzia da prozesuan sartu behar dugun beste elementu bat.

G.: Hori hainbat kasutan horrela beteko da, baina hartzen duzu, adibidez, ez dakit norainoko motibazioarekin Bilbo bezalako ingurune erdaldun ba-

tean euskaraz ikasi duen bat eta gero ez daukana ez etxean, ez lanean, ez inon euskaraz egiteko aukerarik. Eta hori da gaur egun askori gertatzen zaion arazoa: ikasitakoa non garatu eduki ez eta azkenean pertsonalki berriro atzera egin. Hau da, berriro lehengora goaz, kontzientzia eta koherentzia pertsonal hori nola lortu zonalde ezberdinetan.

«Faktore legala berdina izanik Komunitate Autonomoko toki guztietan, edo, Nafarroako zonalde bateko inguru guztietan, zergatik ari da Euskara galtzen Baztanen eta berreskuratzen Lizarran? Non dago ezberdintasuna? Kontzientzian»

J.M.S.C.: Arrasaten egin dena, egin daiteke Bilbon eta egin daiteke Donostian. Hartzen baduzu, adibidez, Nueva Gineako herri bateko egoera. Nueva Ginean mintzatzen dira 600 hizkuntza ezberdin; bere kapitalean, Port Moresbyn, zein da hizkuntza nagusia? Pidgin Ingelesa. Zein kopuruk, zeintzuk erabiltzen dute Ingelesa hiriburuan? Kopuru mugatu batek. Hiri honetako ingelesdunak Ingeles hizkuntza hitz egiten ez duten herritarrez inguraturik daude, eta hala ere, elkartzen dira Ingelesa bakarrik mintzatzeko.

Aldrebes esanda, orain Euskara jasaten ari den erasoa edo, hobe esateko egoera, orain dela bi mende erdarari suertatu zitzaion. Iruñean erdara hasi zenean oso hizkuntza mugatua eta gutxiengo batena zen. Zertan dago ezberdintasuna? Konpaktazioan. Iruñeko erdaldunak konpaktatu ziren bere bizitza eta herria erdaraz bideratzeko.

Beraz, Bilboko euskaldunek Iruñeko —edo Donostia edo Bilboko— erdaldunek zuten kontzientzia hartzen badute, prozesuari buelta eman diezaiokete.

G.: Hala ere, hor faktore gehiago egongo dira, ez? Ez da bakarrik konpaktazioa izango?

J.M.S.C.: Faktore asko daude. Hor dago demolinguistika, defizit funtzionala, transmisio pertsonala, hizkuntzen arteko distantzia,... Baina, lehen aipatu dugu faktore guzti hauek mailakatuta daudela, eta batzuk besteak bultzatzen dituztela. Orduan, dena bultzatzen duena kontzientzia da, kontzientzia pertsonala.

Beste adibide bat. Faktore legala berdina izanik Komunitate Autonomoko toki guztietan, edo, Nafarroako zonalde bateko inguru guztietan, zergatik ari da Euskara galtzen Baztanen eta berreskuratzen Lizarran? Non dago ezberdintasuna? Kontzientzian. Lizarrako euskaldunek egiten dutena egin dezakete Nafarroako euskaldun guztiek. Egiten ez badute ez da lege-arazoengatik, kontzientziaren ezagatik baizik.

Beste exenplu bat: Londres. Londresen gure haurrak joaten ziren eskolan 30 nazionalitate ezberdinetako haurrak zeuden, eta hura eskola arrunta eta estatala zen. Londresen 40/50 nazionalitate ezberdinetako multzoak biltzen dira, eta hauek ez daude denak erritmo berean hizkuntza eusten edota galtzen. Esate baterako, Poloniera nahiko ondo mantentzen da. Zergatik? Badutelako bere eliza, bere merkatua, bere bilerak, bere egunkaria,... Zer dago Londresen Bilbon egin ezin daitekeena Euskara eta euskaldunekin?

Noski diskriminazio legala faktore bat dela, baina, euskaldunek historikoki berea izan den lurraldean kontzientzia hartzen badute, kapaz izango dira legea aldatzeko. Erredukzionismo batean ez erortzeko beti errepikatu behar dugu gauza bera. Komunitate batek beti dauzka nukleo bat eta



«Partiduetatik kanpo sortzen baldin bada dinamika berri bat, euskaltzaleen konpaktazio-prozesu berri bat sortuz gero, partiduak ere aldatuko dira».

periferia bat. Nukleoa osatzen dute hizkuntza kontzienteki erabiltzen dutenek, hau da: bertako hizkuntzan motibapen arrazionala eta erabilera soziala uztartzen dutenek. Periferian, ostera, atxekimendu pertsonalarik gabeko hizkuntza erabiltzen dutenak kokatzen dira. Hauek komunitatearen barnean mantentzeko hizkuntzaren erabilera soziala behar da segurtatu, beste gauzen artean inplementaziozko legeen bidez. Baina, helburua da gero eta hiztun gehiago nukleora erakartzea, eta hori da kontzientziaren (kualitatearen) betebeharra.

G.: Joan gaitezen Arrasatera. Arrasaten hori planteatzen denean Arrasate Euskaldun Dezagun bezalako talde batek euskaldunak biltzen ditu, motibatzen ditu, erabilpena bultzatzen du, baina hortik kanpo gelditzen da erdaldunen multzoa. Nola eragiten du AEDk esate baterako erdal hiztunen mailan? Ez du horrek areagotzen komunitateen haustura?

J.M.S.C.: Bere tokian eta bere lekuan jarri behar dugun gauza zera da: euskaldunok nagusia den egoerarekiko dugun haustura eta diskriminazioa. Hau da, dominante den egoerarekin beti kanpoan eta diskriminaturik geratu direnak leku guztietan euskaldunak izan dira. Hala eta guztiz ere uste dut eman behar dugun jauzi kualitatibo horren elementu edo klabe bat tolerantziaren printzipioa dela.Ez dugu nahi, eta esan dut liburuan ere, guretzat nahi ez duguna ez diegu besteei egin behar. Zer esan nahi dut horrekin? Horrekin esan nahi dut eskubide osoa dugula gure bizitza pertsonal eta sozialean oreka lortzeko. Baina oreka lortzeko erabiliko ditugun tresna eta bideak orekatzaileak izan behar dute. AEDn eta antzeko taldeetan, nik dakidanez behintzat, kontutan hartzen da.

«Teoria hau ondo ulertzen badugu, konturatuko gara hizkuntza ez dela inolako tresna diskriminatzailea, integratzailea baizik. Euskara izango da etorkinak integratzeko erabiliko dugun biderik egokiena»

Bestalde, teoria hau ondo ulertzen badugu, konturatuko gara hizkuntza ez dela inolako tresna diskriminatzailea, integratzailea baizik. Euskara izango da etorkinak integratzeko erabiliko dugun biderik egokiena. Badakigu etorkinak (edo bertako desnatibizatuak) ez direla egun batetik bestera euskaldunduko. Baina guri interesatzen zaiguna martxaren norabidea da eta ikuspegi hortatik ematen diogu duen balioa motibapen-mailan gelditzen den aldaketari. Motibapen negatibo batetik motibapen positibo batera pasatzeak adierazten du multzo honek egiten duen integrazio-ahalegina, bere euskararen biabilitatearen aldeko apustua. Eta hala jokatzen duen edozeinek merezi du errekonozimendu sozial osoa.

Guk sortzen ditugu baldintzak bereziki haurrentzat, sortzen ari diren haurrentzat, horiek izango dira gure jomuga edozein herri euskalduntzeko prozesuan: haurra edo hobe esateko momentu horretan jaio den haurra. Momentu horretan jaio den haurra abia

daiteke anormalak diren baldintza batzuetan edo normalak diren baldintza batzuetan. Guk artifizialki induzitzen ditugu normalizatzaile diren baldintza horiek. Horrek zer esan nahi du? Ume horrek lortuko duela bere identitate euskalduna eta izango duela bere familia euskalduna eta gero joango dela lan bila Euskaraz eta izango duela posibilitatea trebetasun bat lortzeko Euskaraz eta bere herrian egingo duela bere bizitza Euskaraz. Hori da helburua, helburu horretan ez dago diskriminaziorik zeren eta haur guztiek, baldintza batzuk emanez gero, lor bait dezakete orain ikastola dela medio lortzen ez duten gauza, Euskararen ezaguera menderatzea. Baina, aldi berean badaude eragin handiko helduak prozesu horretatik kanpo geratzen direnak, hor sartzen da nik esaten dudan «redistribucion del poder linguistico».

G.: Noraino da estrapolablea Arrasateko esperientzia? Hor badaude baldintza konkretu batzuk, euskaldungoa dexentekoa da, gero Udala mota batekoa da, etab., laguntza-modu batzuk eta badaude beste toki batzuetan ez daudenak. Noraino da adibide hori estrapolablea, ez Euskal Herri osora baizik beste herri batzutara?

J.M.S.C.: Beno, Arrasaten egiten dena ezin daiteke egin, esate baterako, Antsoainen edo Burlatan. Baina zergatik ezin daiteke? Pentsa ezazu Euskal Herrian gaudela, bagaudela maila horretan, hizkuntzarena, lehenago erabili dugu eskema berdina denboraz mintzatzeko, erabili dugu gizarte-taldeei buruz mintzatzeko. Horiek dira Euskal Herriko herrien tipologiak. Euskal Herria hasi eta gero edo Euskal Herriaren berpizkundea hasi eta gero, Euskal Herriko herri guztiak diagrama horretan kokatzen dira eta hemen izango ditugu herri elebakarrak. Naturalak, euskaldun bezala iraun zuten herriek eta momentu bezala hartzen dute erabakia kulturalki ere Euskaraz funtzionatzeko. Hemen deituko ditugu, nik deitzen ditut herri linguistikoak, AED edo "herria euskaldun dezagun". Arrasate bezalako herri guztietan, naturalki eta kulturalki nagusia zen hizkuntza erdara zen, baina bazegoen euskaldun-kopuru bat eta momentu batean motibapen razional batek eraginda hasten dira herri euskaldun natural bat sortzen, horiek ematen diote motibapen handiena, horiek ematen diote Euskarari gaitasunik onena eta bitartean dugu B, zer da B? Momentu horretan B da Bilbo, Bilboko euskaldunak kontutan hartuz, eta hartzen baditugu Bilboko euskaldunak, zenbat dira? Eman dezagun



berrogei mila. Herri bat da, nahiko koxkorra, baina ez da herri euskaldun bezala ulertu. Ulertu eta gero hasiko dira BA taldearen ezaugarriak eskuratzen. Baditugu Etxalar edo Labaien edo Erasun bezalako herriak eta horiek konturatuko dira hurrengo pau-

sua dela AB bezala jokatzea eta erdigunean kokatzea.Hemen ditugu erdaldun hutsak direnak, Antsoain bezala edo Arabako Erriberako edozein herri. Zer da Oion esate baterako? Esaten ari dena A bat sorteraztea, ikastola dela medio eta hemendik hamabost urterara izango da edo egongo da Oionen multzo euskaldun bat eta hortik sor daiteke A-ko dinamika bat. Antsoain edo Burlata bezalako herrietan bertako euskaldunak erlazionatzen hasten badira, hurrengo pausoa kasu hemendik bost urtera B bezala edo antzeko herri bat sortzea izango da.

G.: Oso optimista ikusten dut prozesu hori. Bilbon, adibidez, badaude euskaldun hauek, antzeko intentoak egon dira, Gereñoren euskaldunen arteko biltze eta afari horiek edo Iruñean bertan Zaldiko-Maldiko moduko Euskaraz egiteko guneak. Baina azkenean gertatzen dira ghetto batzuen moduan, hiri handian galduta.

J.M.S.C.: Noski, prozesua ez da mekanikoki gertatuko. Euskaraz ihardutea halako egoera batean ez da aski. Jakin behar dugu zer den —zer suposatzen duen— euskaldun izatea. Nik azpimarratu nahi dudana zera da: ghetto baldin badira, kontzientzia pertsonalaren nahikotasun-maila hori lortu ez delako dela. Hori gertatzen ari da Maldrilgo ingelesekin, Madrilgo ingelesak edo Canariasetako alemanak. Lurraldetasunari begira erdaldunak dira, baina ez, hor badaude bi komunitate, batak egiten du Gaztelaniaz, besteak Alemanieraz, eta horrela egiten dute suekoak Palma de Mallorcan. Palma de Mallorcan suediarrek badute bere ikastola, edo bere eskola Suedieraz eta bere egunkaria eta bere frekuentzia modulatuko irratiak. Zergatik uste dugu Bilbo antzeko herri batean, Euskal Herrian hori pentsatzea gehiegikeria bat dela? Zer dute suediarrek euskaldunek ez dutena? Atxikimendu aktiboa. Zer dute suediarrek Palma de Mallorcan, alemanek La Palman eta ingelesek Madrilen euskaldunek Bilbon ez dutena? Honekin ez dut esan nahi ingelesen eta alemanen jarrera orokorra imitatu behar denik, baizik eta *gurea* posible dela. Gainera, Bilboko euskaldunak euskaraz funtzionatzen hasiko balira, beren aukeraren inplikazio sakonenak jakinik, ez lirateke Bilboko erdaldun gehienentzat atzerritarren ghetto bat izango, baizik eta euskal nazioaren lehen ibiltari ausartak: beste askorentzako bidea urratzen dutenak. Eta horrelako euskal jaietan, euskal giroan behin eta berriz suertatu den bezala (baina orain modu iraunkor batean) guk Euskara posiblea ez ezik, bizgarria eta betegarria dela adieraz dezagunean, 'basko' asko hasiko zaio proiektu horri, Euskarari, hurbiltzen.

«Traba psikologikoa gainditzen baldin badugu, orduan prest gaude bai indar aldetik eta bai gure planteamenduen aldetik traba legal guztiei aurre egiteko. Irlandakoa, sarritan aipatu den kasua hori izan da azken finean: traba legala gainditzea mentala gainditu gabe»

G.: Diozunez motorra martxan jartzeko giltza kontzientzia pertsonala da, baina askotan inpresioa ematen du giltza hori egonda ere motorrak ez duela funtzionatzen, oztopo legalak edo agian inertzia-mekanismo horien inertziak berak oztopatu egiten ditu eta. Orduan, hor, baita kontzientzia pertsonala sortzeko eta bultzatzeko ere, ez al dago muga legalik?

J.M.S.C.: Nik esan dut, normalizatu egin behar dugun lehen gauza gure adimena dela, normalizatzen ez badugu, beharrezko den gauza gehiegikeria iruditzen zaigu. Horregatik oso normaltzat jotzen dut norbaitek esatea, nola uste duzu hori Bilbon egitea? Edo nola pentsatzen duzu hori egin daitekeela? Bai, bizi garen egoera hain anormala denez gero normalitatea ezinezkotzat jotzen dugu, baina har dezagun normalitatean kokatzen den edozein herri eta ikusiko dugu haiek egiten dutena guk egin dezakegula. Lehen pauso hori emanez gero, lortzen badugu gure adimenaren normaltasuna, gure burua normaltzat jotzea, orduan, ikusiko ditugu legearen tranpak eta anormalitateak eta izango ditugu hori gainditzeko beharrak: Quebec, Lituania, Georgia lekuko, Hungariarrak, Rumaniako Hungariarrak lekuko. Betetzen baditugu kontzientzia pertsonalean pausoak orduan ikusiko ditugu aurrean ditugun oztopoak eta elkartuko gara oztopo horiek gainditzeko. Orduan nik uste dut traba legalen gainditzea izango dela konpaktazioa, "traba psikologikoa" gainditzeko eragina, ondorioa. Traba psikologikoa gainditzen baldin badugu, orduan prest gaude bai indar aldetik eta bai gure planteamenduen aldetik traba legal guztiei aurre egiteko, baina gure traba psikologikoa gainditzen ez badugu gehiegikeria bat izango da legeen kontra edo legearen alde. Irlandakoa, sarritan aipatu den kasua hori izan da azken finean: traba legala gainditzea mentala gainditu gabe.

G.: Hor aipatzen duzu euskaldunok edo nazionalistok ez daukagula hizkuntzaren kontzientzia hori eta horrek lortuko lukeela komunitatearen konpaktazioa. Hortan gaur egun bizi dugun egoera nik uste dut oso dramatikoa dela dagoen eten politikoarekin edo paktuaren kontu guzti horrekin. Ikusi zena Ibilaldian Bizkaian bai PNVk nola salatu duen eta dirua kentzea eta horrelako gertaera oso konkretuekin. Ikusten da nolabait badagoela Ikastolen inguruan eta horrelako mailen artean kontsentsu bat, baina ikusten da baita ere badagoela joera areagotzeko etena. Hori nola ikusten duzu. Paktuaren eragina nik uste dut tragikoa dela euskararen kasuan. Ez dakit zure ikuspegitik hori nola den.

J.M.S.C.: Arazo horretan sartu nahi dut bakarrik hizkuntzaren edo soziologiaren aldetik eta nik uste dut nabaria dela lehen esan dugun prozesua integratzailea baldin bada orduan normalizaziorako bidea hartu dugun seinalea izango dela. Baina prozesu disgregatzaileak —euskaldun eta abertzaleen disgregazioa— esan nahi du hori dela ordekatze prozesuan seinale nagusia eta kasuan estatu hedakorraren garaipenik handiena.

G.: Beste adibide bat: orain egunkariaren gaia dabil airean. Juntatu da talde bat, gizartetik ateratako pertsona-talde bat eta multzo horrek hedatzen du asmo bat horrelako egunkari bat kaleratzeko, eta ikusten da Jaurlaritzatik beste bat egin behar dutela. Ikusten da gaur egun bizi dugun egoera hori dela: gizartetik horrelako

proiektu bat sortu eta aurrera eraman nahi izatea eta, horren aurrean, hori gelditu eta beste bat atera nahi izatea, euskaldun dela eta euskara bultzatzen duela esaten duen aginte baten aldetik.

J.M.S.C.: Nik ez dut Euskara normalizatu nahi nire bizitza egoera desnormalizatu edo anormal batean mantenduz. Niretzat Euskara izango da edo bihurtu daiteke nire bizitza normalizatzeko tresnarik egokiena edo aproposena, Euskara hemen eta Albaniera Albanian. Uste dut gaur dagoen egoeran bizi garela oso mentalitate eskizofreniko baten barnean eta eskizofrenia horren lekuko dira demokraziari buruz erabiltzen diren kontzeptu eta jarrerak. Nire ustez hor badago exenplu oso argi bat, munduko erregimen guztiak uniformatzen ari dira demokrazia formal baten pean baina gizakien arteko desberdintasun sozioekonomikoak areagotzen ari dira. Orduan demokrazia horrek ez ditu gizakien edo gizon eta emakumeen arteko elkartasuna eta funtsezko eta zuzeneko berdintasuna areagotzen, baizik eta elite baten pribilegioak ilusio baten azpian, demokrazia ilusio baten azpian babesten. Ez naiz Euskal Herriaz mintzatzen ari baizik eta zibilizazio horretaz, kapitalismoaren zibilizazio horretaz, demokrazia horri ikusten duzu nola komeni zitzaion Hegoamerikako diktadura eta orain Iparamerikarrak ari dira bultzatzen demokrazia formala. Ikusi zutenean ze ondorio eman zuten Europa hegoaldean eta



«Ni konturatu naiz kontzientzia bera elementu trilogiko bat dela eta kontzientzia osatzen duten elementuak hiru direla: pentsamendua, sentimendua eta ekimena».

Espanian bereziki demokrazia formalek, orduan konturatu dira hori esportagarria dela nonnahi bere interesak aurrera ateratzeko, eta induzitzen dituzte egiazko demokraziaren elementuak direnak, kontrako jarrera bat areagotzen dute. Esate baterako egiazko demokrazia: edozein demokrazia, orain arte asmatu egin diren demokraziak eskailera batean daude gora ala behera joaten: hemen izango da demokrazia perfektua oraindik inon ez dena eta hemen dago partidokrazia eta diktadurak, demokraziaren uraz bataiatuta, «democracia disfrazada» alegia. Zein dira eskailera horien eskaloiak mugitzen dituzten elementuak? Hiru:

1.— Informazioen zabalkuntza: dakienak ez dakitenei dakienari buruz informatzea. Informaziorik ez baduzu ezin dezakezu erabakirik hartu eta ezin dezakezu zuretzat onuragarria den pertsona aukeratu.

2.— Bigarren elementua partizipazioa: hainbat eta partizipazio gehiago, orduan eta gehiago ari da demokrazia hedatzen eta perfekzionatzen.

3.— Errepresentatzaileen kontrola errepresentatuen eskuetatik. Eta oso sintomatikoa da nola demokrazia formal eta herri horietan sistematikoki agintariak zabaltzen duten deskonfidantzaren mezua bai partizipazio, bai informazio eta bai kontrolari dagozkienean.

G.: Egiten duzun azterketa, demokrazia edo dagoen sistemaren aldetik egindakoa da; eta ez sistema horrek hizkuntzarekiko suposatzen duenaren aldetik.

J.M.S.C.: Gertatu dena da sistema horrek baldintzatzen duela hizkuntzaren egoera eta baldintzatzen ditu lurralde politiko baten hitzarmenak eta paktuak eta baldintzatzen du egunkariarena. Orduan, baldintza bereziak dituen egunkaria sortzen baldin bada (partizipatzailea, informatzailea eta gizarteak kontrolatua), boterea dutenak defentsa jarreran jartzen dira berehala, ez Euskaraz delako, bere ezaugarriengatik baizik.

«Baldintza bereziak dituen egunkaria sortzen baldin bada (partizipatzailea, informatzailea eta gizarteak kontrolatua), boterea dutenak defentsa jarreran jartzen dira berehala, ez Euskaraz delako, bere ezaugarriengatik baizik»

G.: Egunkariarena atera dut adibide moduan gaur egun dagoen haustura eta seguruenik konpaktazioaren zailtasuna jartzen duen adibide baten moduan. Esate baterako: hizkuntz politika bat garatzeko orduan egunkari bat izan daiteke ez bakarrik, baina bai horretarako elementu garrantzizko bat. Hau horrela joaten bada ikusiko da horrelako batek zein zailtasun izan ditzakeen ekonomi aldetik eta bizitzeko. Beste aldetik ateratako egunkari batek, egunkari instituzional batek jendearen artean erretxazoa sortuko du. Hizkuntz politika-mailan oro ere

gertatzen da horrelako haustura bat: alde batetik daude euskararen alde dauden indar-pila bat, militanteak edo ez-militanteak eta gero bestetik daude hizkuntz politika instituzionalaren tresnak dituztenak, baliabideak dituztenak hain zuzen ere gure baldintzak sortzeko, zeren kontzientzia pertsonala eta kontzientzia soziala sortzeko ere behar dira tresna eta baldintza batzuk. Horiek dauzkatenak ez dituzte erabiltzen horretarako eta hor dago haustura bat.

J.M.S.C.: Haustura bat eta berriz ere kontzientziaren eza zeren eta gaurko agintariek Euskal Herriko, Estatu Espainoleko eta Uruguay, Paraguay eta Panamako agintariek hartu dute boterea aurreko boterearen baldintzak eta azpiegitura aprobetxatuz. Eta ez zen iraultza popularra, azken finean iraultza popular batek gainditu behar dituen oztopoak direla eta ematen dio, nahiz eta askotan oso epe mugatu batean, ematen dio jendeari kontzientzia bat. Hemen kontzientzia hori moteldu egin zen. Zergatik? Frankismoaren jokaera eta azpiegiturak demokraziaren uraz bataiatuz eta jende batzuen prestigio pertsonala sartuz, hor egon zen, nik behin esan dudan traizio bat. Ez zen bakarrik hor zegoen paktua, hori izan zen paktu guztien gurasoa. Momentu batean batzuk bere izen ona jarri zuten eta beste batzuk jendea elienatua mantentzeko egituren ezagupena, eta elkartu egin ziren.

Behar duguna kontzientzia da, eta kontzientzia linguistikoa edo kontzientzia gauza bera da. Guk lortzen dugun kontzientzia hizkuntza batetik edozein hizkuntza dela medio baina hizkuntza partikular batetik ez dugu lortzen kontzientzia abstraktoa, baina hizkuntzak ematen digu behar dugun kontzientzia. Noski, hizkuntz kontzientzia lortzen baldin badugu, lortzen dugu ez bakarrik Euskara salbatzeko eta ez bakarrik Euskara errekuperatzeko, gure bizitza errekuperatzeko baizik. Horregatik izango da kontzientzia orokorra, kontzientzia totala.

G.: Zer prozesu edo ze bide ikusten duzu lantzeko kontzientzia hori. Lehen abiatu gara diskurtsoaren periferiaren gelditze batetik. Nola egiten dugu?

J.M.S.C.: Ni konturatu naiz kontzientzia bera elementu trilogiko bat dela eta kontzientzia osatzen duten elementuak hiru direla: pentsamendua, sentimendua eta ekimena. Orduan zer behar dugu kontzientzia lortzeko; behar dugu jakin aro berri honetako pentsamendu integratzailea landuz, behar dugu kontsentitu, eta hor sartzen da inplikazio pertsonala eta baita sartzen da sentimenduarena. Nik deitzen diot «optimismo crítico». Zer da «optimismo crítico» hori? Da konturatzea gu garela inportanteak inporta zaizkigun gauzak bideratzeko. Orduan botereak beti «prescindible» bezala alboratu nahi gaitu. Gu gure bizitzaren erdian kokatzen baldin

«Ulertu duguna praktikan jarri behar dugu, ezin dezakegu humanitate osoarentzat hain kritikoak diren momentu hauetan pentsalari bat bezala gure harrizko dorrean geratu»

bagara esanez: «ni naiz nire bizitza bizitzen ari naizena», orduan ni ez naiz niretzat «prescindiblea», orduan hortik sortzen da beste ilusio berri bat eta herri honek askotan iraganean jokatu egin duen ilusio berri hori, sentimenduarena: kontsentimendua. Baina bi elementuak; kontsentimendua da sentimendua, da sentitzea eta nahi izatea eta hor sartzen da inplikazio pertsonala. Eta hirugarren elementua ekimena da. Kontzientzia teorian gelditzen bada, uztartzen ez baldin bada praktika askatzaile batekin, orduan galtzen dugu genuen kontzientzia areagotzeko eta kontzientziaren dinamika hori ibiltzeko aukera. Ulertu duguna praktikan jarri behar dugu, ezin dezakegu humanitate osoarentzat hain kritikoak diren momentu hauetan pentsalari bat bezala gure harrizko dorrean geratu.

Iñaki Uria